

## Hitzaurrea

Joxe Azurmendi

Antropologia filosofikoarekin ilun dago haren jatorriaren kontuan, kasik atzo edo oraintsu sorturikotzat ikusi behar ote dugun hori, ala ez ote den betidaniko kontu zaharra filosofian — azken batean Antropologia zer den kontzeptuarekin ere dagoen zalantzaren agergarri apika.

Batzuentzat (Max Scheler, B. Groethuysen, Brüning, Landmann) Antropologia filosofikoa betidanik egon da. Gizakiak beti galdetu du bere zer izateaz: leizeetako artean, mitologian, lehen gizakiak bere buruaren kontzeptua eta gogoeta utzi digu plastikoki adierazita. Gero erlijioak, literaturak, ipuinak, gizakiaren filosofiaz beterik daude kultura guztietan.

Ordea estudiantea hasten da Filosofiako Hiztegiak begiratzen, esate baterako, eta Antropologia filosofikoa oso berria ematen du: H. O. Pappé-rentzat «modern philosophical anthropology originated in the 1920s» (ik. «Philosophical Anthropology» art., P. Edwards arg., *The Encyclopedia of Philosophy*, bol.VI, New York-London 1967). *Enciclopedia de la filosofía Garzanti-n*, 1992, berdin: «La expresión “antropología filosófica” es típica del siglo

XX». Ferrater Mora-k *Diccionario de Filosofía*-n, 1981: «El nombre “antropología filosófica” es relativamente reciente. Se ha extendido sobre todo a partir de los trabajos de Scheler...». M. A. Quintanilla-k zuzenduriko *Diccionario de filosofía contemporánea*-n orobat, 1985, J. L. Rodríguez-Molinero-k: «La antropología filosófica puede ser considerada como uno de los modos predominantes de pensamiento filosófico en el siglo XX». Horrela dagite hiztegi alemanetan ere Plessner-ek berak, Habermas-ek, etab.

Gaurko autoreengan aurkitzen diren bi tesi nagusi kontrajarriotan —hala ohartzten du Odo Marquard-ek<sup>1</sup>—, bakoitzak bortizki adierazten duena, gaur egun berak errepresentatzen duen Antropologia filosofikoaren kontzeptua da. Biek baztertzen edo ahazten dutena, Antropologiak zinez mendebaleko filosofian izan duen genealogia eta garapidea da, Lehen Modernian abiatu eta gure egunotara arte, gaur bertan oraindik bere estatutu akademikoa oso garbi erabakia eduki gabe beste diziplina filosofiko eta zientzien artean.

«Anthropologia» hitza bera grekotik dator, baina guregana ez da greko klasikotik, filosofikotik heldu, alexandrinoko edo helenistiko berantetik baizik; erlijioso edo teologikotik, beraz, nolabait esateko. Kultura biblikoa filosofikoki meditatzea hasi duen gogoetatik, zehazkiago. Izan ere, Aristotele-k «anthropológos» erabiltzen duenean (Eth. Nic. 1125 a 5), lagun hurkoa gustora larrutzen duen kontukatilu edo maisialari berritsua esan nahi du. Filon Alesandriakotik aurrera gero Elizako Gurasoetan maiz irakur daitekeen «anthropologein» aditzarekin, aldiz, Yahveri desagokiro gizakiaren bizitza-esperientziako kontzeptuak egozte, Jainkoari gizakiaren antzera mintza eta jokaraztea, ulertu behar da. Orain antropomorfismoa esango genukeen esanahi honekin pasa da hitza Eliz literaturatik frantsesera. Eta horixe esan nahi du «Antropologiak» Leibniz-en Metafisikako Diskurtsuan oraindik (1685 edo 86) esate baterako: «la sainte écriture, qui ne paraît s’être servie de cette anthropologie...»; «C’est en cela qu’il

s'humanise, qu'il veut bien souffrir des anthropologies...»<sup>2</sup>. Diderot-en *Entziklopedia* famatuan bertan (1778) honela azaltzen du terminoaren adiera Mallet Abatea-k: «*Anthropologie*, s. f. (*Théol.*) maniere de s'exprimer, par laquelle les écrivains sacrés attribuent à Dieu des parties, des actions ou des affections qui ne convient qu'aux hommes, & cela pour s'accomoder & se proportionner à la foiblesse de notre intelligence».

Humanismoak eta Erreforma protestanteak Alemanian eragin duten irakaskuntzaren berriztearekin, hainbat «zientzia» berezi edo diziplina berri dakusagu sortzen hango eskola sisteman: orain arrunta iruditzen zaigun zientzien izendapen greko asko, Psikologia (Melanchton), Ontologia (Goclenius), Hermeneutika (Dannhauer), etab., gai horietako irakasleek orduan beren esparruaren antolamendurako eratuak izan dira, mugapen tekniko eta pedagogiko gisa. «Anthropologia», gizakiaren zientzia bezala, izenburu grekodun beste diziplina horiekin batera asmatu da, zalantza gabe, eta, itxura guztiz, 1501eko M. Hundt-en *Anthropologium de hominis dignitate, natura et proprietatibus* izan da tituluan izen hori ageri duen aurreneko traktatua. Gero, XVI eta XVII. mendeetan titulu horretako argitalpenak ugarituz joan dira, hain zuzen Psikologiarekin eta Medikuntzarekin oso loturik askotan. Esan genezake, bada, XVI. mendetik XVIII.era arte horretan (bir)sortu dela eta finkatu Antropologia, hitza eta kontzeptua, ja gure zentzuan gutxi gora-behera. «Anthropologia est doctrina humanae naturae», zedarritu du O. Cassmann-ek (1596).

Garrantzizkoagoa, hala ere, tituluaren independentzia hori baino, pentsamenduak garai horretan abiatu duen autonomi bidea da, gizatasunaren gogoetan.

Burckhardt-ez gero klasikoa bilakatu da Ernazimentua «gizakiaren aurkikunde» bezala ezagutaraztea, Ernazimentu italiarra batik bat. «De dignitate hominis» gaia —Pico della Mirandola-k bikain landua— Florentziako humanistek langai kuttuna izan dute filosofia nahiz arteetan: gizakiak, Jainkoaren irudiko kreatura horrek, ez bide du na-

turarik (naturak lotu egiten du!), bera ei da bere buruaren eta naturaren artista. Librea da. Geroxeago, alabaina, tropa espainol eta frantses harroen Italiako gerrek suposatzen duten askatasun errepublikarren frakasuak eta umiliazioak (Machiavelli); eta, Italiatik kanpora, iparraldean nagusitu den Erreformaren izpiritu ilunbetsuak, erruaren eta bekatuaren angustia zamaz, eta erlijiozko gerra zibilak eragiten ari diren ustez «askatasunaren» desesperazioak (Montaigne, Hobbes), biraketa erradikal bat eragin dute giza naturaren, gizon-emakumeak ordenu batera lotzen dituenaren bila. Giza duintasun altuaren kantari ernazentistak ez dago antropologoak kontsideratzerik: metafisiko platoniko distiratsu batzuk izan dira gehienez ere. Baina ezin da ez antropologoak kontsideratu jada nolabait, Machiavelli, Montaigne eta Hobbes bezalako «giza naturaren ikertzaile» irri-tuak. Horien eskuetan, izan ere, gizakiaren analisisia filosofia fundamentalak bezalako zerbait bihurtzen da pentsamenduaren sistema osoan.

Are —inportantziarik handienekoa baita hauxe— giza naturaren ikerketa hori autonomizatu egin da bai metafisika tradizionaletik, bai dogmatika erlijiosotik, aldez iturri greko-latinoetara joz arrazoi eta eredu bila, aldez razionalismo huts-hutsera. Zer da gizakia? Nola definitu? Erantzuna eman ahal izateko oraindik eskuarki ez metodorik, agian ez problemaren kontzientzia garbirik ere, buruek eduki arren, esan beharra dago, Antropologia izenarekin Alemanian sortzen ari diren traktatuez beste, Descartes-en *Traité de l'Homme*-tik Hume-en *Treatise of Human Nature*-ra, giza naturaren arazoak eta natura hori erlijiotik eta metafisikatik aparte definitzeko grinak filosofia osoa inbaditu dutela (eta poesia bera: A. Pope, *Essay on Man*), Frantzia eta Ingalaterra eta Holandan ere. Modernia osoaren mugimendu bat da, beraz, nolabait Ilustrazioaren argitan, Antropologia piztarazi duena formalki nahiz bere edukietan.

Hemendik hara bilakatuko da posible (egin, hala ere, askoz geroago bakarrik egin ahal izango dena, egia esa-

teko!), filosofia grekoan edo platonismo florentinoan antropologia gutxi-asko inplizito bat aurkitzea barnean — ametsetan ere beraiek inoiz pentsatu ez dutena egitea; edo, berdin, mitoetan, tradizio biblikoan, beraiek antropologiarik inola ere izan nahi ez duten pentsamoldeetan alegia, teologia estriktoak baizik. Haiak antropologoak izan direla edo antropologiak direla baino hobeto, egungo antropologoak edo antropologia direla, esan beharko genuke, haiengan antropologia bat deskubritzen dakitenak ezkutuan.

Pentsamenduaren historian badago, E. Cassirer-ek seinlatu duen fenomeno bat, Antropologia nolabait betidanikotzat, edo agerpen periodikotzat filosofiaren historian, har litekeela idarokitzen duena, hein batean. Filosofia, Cassirer-ek ohartzen duenez<sup>3</sup>, krisialdi larrietan «antropologizatu» egiten da beti. Aurrena Sokrate-rekin, Polis grekoaren krisiunean: Sokrate-k ez du joniarren Natur Filosofiarekin ezer jakin nahi; kaleko gizon-emakumeak dira hari irakasten diotenak, hiriko portaletatik at zuhaitzek eta soroek ez diote deus esaten, aspertu egiten da (ik. *Fedro*); bere kezka bakarra hiritarra da, ez kosmologia. Sokrate-k filosofia zerutik lurrera ekarri zuela, barreiatu da horregatik Zizeron-en ateraldia. San Agustinekin berdin gertatzen da hurrengo, Inperio Erromatarraren krisian: harekin, «izatearen» esfera abstraktua utzi eta, filosofia berriro barnetasunera bildu da, «bizitzara», kontzientzia intimoaren analisisa, gurarien eta bizipenen, giza miseriaren eta handitasunaren azterketara. Eta, Erdi Aroa jausita jada, San Agustin horrexengana itzuliko da Petrarca, Ernazimentuaren atariko krisian, bere krisi pertsonalean orobat, Mont Ventoux gailurrera igo eta berak kontatzen duen esperientzia natur-mistikoan. XVIII. mendearen buruan Kant-ek Antropologia fundamental baten proiektuarekin erantzun nahiko dio Ilustrazioaren porrotari, geroxeago aipatuko dugunez. XX. mendean, azkenik (Max Scheler, etab.), oinarritzko arazo filosofiko guztiak han kopilatuz, behatzaile askori Antropologia filosofikoaren proiektua orduantxe asmatua eta aurreko guztia Antropo-

logiarik batere ez iruditzerainoko maneran antropologizatu da berriro filosofia, esan bezala, Lehen Mundu Gerraren osteko krisi egunetan.

XX. mendeari, planteamolde antropologiko berri-rik, edo, nahi bada, maila berri bat ere Antropologiaren garapide modernoan, ez dago zergatik ukatu, horregatik —aldi beretsuko Estetikaren edo Historiaren Filosofiaren jaiotza paraleloetan bezalaxe— haren sorrera eta oinarritzapenean Ilustrazioaren funtsezko papera ezertan gutxitu gabe. Behiala, salbaziozko ebangelio zerutarrari natura gehitzeko (etika), San Paulok egin zuenaren modura, razionalismo modernoak ere «gizon-emakumearen natura» osatzeko materialak eskubeteka Estoan bildu ditu, Dilthey-k Modernitatearen «antropologia berria» deitu duena osatzeko<sup>4</sup>. Gero gizon-emakume ereduazko —beti nahikoa estoiko— hori Txinan, Egipton, etab., bilatzen jarraituko dute mende hauek.

Gizakia bere gizatasunean ulertzeko, natura hain erreferentzia funtsezkoa bilakatuz gero, gizon-emakumea zer izatearen kontzeptuan berebiziko inportantzia hartuko dute arraza, sexu, temperamentu, karaktere, adinaren kontsiderazioek, edota klima, paraje, hots, «geografia fisikoa»renak, herrien arteko diferentziak esplikatzen kausa bezala. Batetik Antropologia medikuntzari hurbilduko zaio. Bestetik, misiolari eta bidaiarien informazioek, herri ezagutuberrietako jendeen bizimodu eta ohiturak deskribatuz, sekulako eragina izango dute pentsamendu antropologikoaren moldaeran<sup>5</sup>. Interes historikoa bera lagun etorriko da eta, Grezian ezezik, honez gero antzinako Egipton, Txinan, edo Ameriketako indio-herrietan, europar endakaturia ez bezalako «gizaki naturala» erraz miretsiko da. Azkenik, material ezberdin honi guztiari askotan itsatsi zaizkiola, aitortu behar da, zientziako mekanizismoaren eskemak eta metodoak, nahitaez Antropologia nahaspilatutxo bat osatuz azken emaitzan.

Oro har, gizakia zer den galderarekin eta aipatu informazio etnografiko horiekin guztiekin, autokontzien-

tzia europarra bere oinarrietan kuestionatua aurki zitekeen. Aurkitu ere, beharbada, Rousseau-rekin eta beste gutxiren batzuekin, halaxe aurkitu da. Ez da hori izan korrientee-na hala ere. Hona hemen globalki M. Duchet-ek zer derizkion Antropologia ilustratuari buruz: «XVIII. mendean historiaren eta “giza zientziaren” arteko harremanez hitz egitea, ez da bakarrik historiaren dimentsio antropologi-ko bat pribilegiatzea, gaur egun gauza bistakoa iruditzen bazaigu ere hau, baizik eta, Filosofoen antropologiaren izaera eta funtzio ideologikoa salatzea ere bada. Ariketa diskurtsibo horren joera, historiaren eremu barruan, “his-toria gabeko” deitzen diren herrien kontinentea begizta-tu, haren jabetza eta edukitza segurtatzeko xedez, begizta-tzea da, jardun zientifikoa izateko asmorik gabe. Bere di-ferentziarekin desentonatu egiten duen eta problema sor-tzen duen Besteari buruzko diskurtsoa da; gizakiak gizakia zibilizatzeari buruzko diskurtsoa; Indioen suntsipena zen-tsuratu egiten duena eta basatien asimilazioa sustatu; dis-kurtso arrazista eta quasi etnozida hauek, etorkizun ederrez beteriko paternalismo batekin nahasturik, beren artean partekatzen dute, hartara benturatu gabe historilariak uz-ten duen eremua. Ilustrazioko humanismoaren oinorde-tzari uko egin gabe, adorea izan behar da norbere buruari bere mugez galdetzeko, eta zenbait mito zalantzan jartze-ko. — Hemen testuak zuzenean irakurtzeko modukoak egiten dituena, zoritxarrez, beren modernotasuna da: et-nozentrismoa, Bestearekiko beldurra eta destaina, zuri-  
en bakea, eta mundu beltzaren heriotza. Antropologiak, bere indarrean eta bere lorean jaioz, gizaki zuriaren loria alda-rrikatzen du, eta horri, opari gisa, urtekaririk gabeko mun-du bat eskaintzen dio, memoriarik eta ahalmenik gabe-koa, non basagizonak eta emakume naturalak espeziea be-tikotu bai, betikotzen duten, baina berak zibilizatu gabe gelditzen diren, beraien baitan lo datzan historiaren iza-kiak direla ahazturik»<sup>6</sup>.

Pentsamendu ilustratuaren garapen positibo bat —nahiz ez propio Antropologia gisa ulertua momentu

hartan— Moralista eskoziar eta ingelesena, gero frantsesena izan da, beraiek landu duten sentimentu moral eta estetikoaren analisi barnakorrarekin antropologia kultural eta enpiriko modernoetarako bidea irekiz. «The proper study of mankind is man», dio A. Pope-ren *An Essay on Man* (1733) poemako esakune sonatuak: Goethe-k «gizakiarentzat gairik interesgarriena gizakia da» bezala irakurri duena.

Gizatasunaren muinaren bila, interes izpiritualistago edo naturalistagoz, aski diferenteak egin dira, beraz, saioak, Antropologia gaxtea oinarritzen ari zitzaigun mendeotan, metodoak ere aski diferenteekin han-hemen, eta aski diferenteekin ikergaiak eta eremuak ere maizentan. Arrazoiketari bezala, behaketari behin eta berriro ihes egiten zion objektu linburia baitzen, izan ere, gizatasun bilatu hori. Pascal dugu gizakia zertan datzan atzematuko zailtasun horren lekuko: misteriozko izakia horixe, gizon-emakumea, aingeruaren eta piztiaren artean, pentsatzeko gaitasuna duen kainabera, bere natura gainditzeko eta transzenditzeko gaitasuna duena hortaz! Gizakia kontraesan bat da. «Bi erresumatako hiritarra», iritziko dio Kant-ek.

Guretzat ohargarria, nolana ere, da, Pascal-en obran ikus daitekeen eran, gizakiaren meditazioa honez gero Jainkoa, mundua, historia, Nia eta dena bere baitan biltzeko gauza bihurtua dirudiela. Filosofia guztia —horri uko egiteko denean ere, Pascal-en kasuan den bezala— gizakia baitan zentratua geratzen ari dela, handik zientzien beste alorrak inbadituz (etika, teologia, metafisika), bera haien menpean egon ordez. Nabarmenago Kant-engan ikusten da hori, momenturen batean behintzat. Adibidez, *Logika*-ko Sarrerako adierazpen sonatu hartan: «Filosofia-ko esparrua..., zentzu kosmopolitan, ondoko itaunotara ekar liteke: 1) Zer jakin ahal dut?, 2) Zer egin behar dut?, 3) Zer itxaron ahal nezake?, 4) Zer da gizakia? Aurreneko itaunari Metafisikak erantzuten dio, bigarrenari Moralak, hirugarrenari Erligioak, eta laugarrenari Antropologiak.



Baina dena Antropologiatzat jo daiteke funtsean, aurreneko hiru itaunak laugarrenari erreferitzen zaizkio eta» (A 25)<sup>7</sup>.

Bere gora-behera eta ezbai guztiekin, beharbada Kant-en *Antropologia*, 1798an argitaratua<sup>8</sup>, diziplina hori fundamentatzeko mende pare baten saio razionalista edo naturalista eta ilustratu ezberdinen behin-behineko emaitza eta sintesi/gaioaipen bezala ikusenezake. O. Marquard-en arabera, «argitasuna bere posizioaz, metafisika-tik eta natur-zientzia matematikotik honantz, bizitzamunduaren filosofia bezala, Kant baitan lortu du Antropologiak»<sup>9</sup>. Dena dela, Goethe-k hain irekaitza kausitzen zuen testu horrek buruhauste franko sortzen die interprete eta irakurzaletzi, bai Kantologian<sup>10</sup> interesatuei eta bai Antropologian, liburu hori mugarri erabakiortzat gomen-datu ahal izateko segurantzia gehiegirekin diziplina honen historian, are gehiago Antropologia modernoaren jaiotordutzat aipatzen inor ausartzeko. Kant-en obra osoarekin hartuta, ordea, ez da dudarik, filosofia osoarentzat abiatu duela periodo guztiz berri bat. Eta filosofiaren barruan, Antropologiantzat.

## Oharrak

1. Ik. MARQUARD, O., «Anthropologie» artikulua, in: RITTER, J. (arg.), *Historisches Wörterbuch der Philosophie*, bol. I, Darmstadt 1971.
2. Gure ikasleek J. MARIAS-en itzulpen espainolean (LEIBNIZ, *Discurso de metafísica*, Alianza, Madrid 1986), «fidelki» eta ulertezinki itzulita aurkitzen dutena: «la Sagrada Escritura, que no parece haberse servido de esta antropología más que...»; «por esto se humaniza, tolera antropologías...»
3. PAETZOLD, H., *E. Cassirer: Von Marburg nach New York*, Darmstadt 1995, 88. Ik., zentzu berdintsuan, «Ausgewählte Daten zur Geschichte der Anthropologie» kapitulua, in LANDMANN, M., *Philosophische Anthropologie*, Berlin / New York 1982, 29 eta hurr. Baina sofistek, ez Sokrate-k, eragin izango zuten lehenengo «itzuli antropologikoa».
4. DILTHEY, W., «La función de la Antropología en la cultura de los siglos XVI y XVII», in: *Hombre y mundo en los siglos XVI y XVII*, México 1978, 407-491.
5. Harriturik aurkitu behar zuen *Antropologia*-n Kant-en irakurleak, haren testu elkorretara ohituak, diziplina hau ikasteko norbere buruaren eta inguruko

- jendearen behaketarekin batera, bidai liburuen eta eleberrien beren irakurketa gomendatzen zuela.
6. DUCHET, M., *Anthropologie et histoire au Siècle des Lumières*, Paris 1971.
  7. Ik. (AA, XI 429), ia hitzez hitz berdin, C. F. Stäudlini gutuna 1793ko maiatzaren 4an. *Arrazoi hutsaren kritika* orobat, A 805, B 833.
  8. Ik. HINSKE, N., «Kants Idee der Anthropologie», in: ROMBACH, H. (arg.), *Die Frage nach dem Menschen*, Freiburg-München 1966, 410-427.
  9. Loc. cit.
  10. Kant-en Antropologiaren Schleiermacher-en erreseina ikaragarritik hartzen dut berba hori. Antropologia nola egokitzen den Kant-en beste filosofia (transzendental) guztiarekin —askotan iritzi izan baita harekin elkartezi-na— ik. J. Kopper-en Sarrera, in: KANT, I., *Anthropologie in pragmatischer Hinsicht*, Hamburg 1980 (K. Vorländer-en argitalpena).

## Bibliografia

HARRIS, M., *El desarrollo de la teoría antropológica*, Madrid 1978.

HARRIS, M., *Introducción a la antropología general*, Madrid 1981.